

PROPOSATZEN DEN TESTUA
Udalen osaketa Plenorako diskurtso markoa

Lehenago eta behin, eskerrak eman nahi dizkiegu gure aldeko hautua egin eta babesa eman diguten herritarrei. Baita, beste aukera batzuk hautatuz herriaren alde desio duten herritar guztiei ere.

Gaur hasita, hurrengo lau urteotan, Euskal Herria Bilduk gure herrian ireki den ziklo politiko berria bultzatzeko lan egingo du herriz herri zein nazio mailan. Ahaztu barik, gatazkak azken urteetan utzi dizkigun ondorio mingarriak gainditzeko aukera handia dugula.

Gure nahia betetzeko asmotan, **lau zutabe** nagusitan zehaztuko dugu gure ekarpena:

- (1) Lehenik, erabakitzeko eskubidearen aldeko akordioa ahalik eta zabalena bilatuko ditugu erakundearen zein kaleko eragileekin, Euskal Herriaren etorkizuna euskal herritarren eskuetan egon dadin.
- (2) Bigarrenik, udala herritarrena izatea nahi dugu. Horretarako, herritarren eta herri-eragileen parte hartzea bultzatuko dituzten araudiak garatu eta adostuko ditugu.
- (3) Norabide berean, instituzioen gardentasuna aldarrikatu eta gauzatuko dugu, helburu hori duten eragile zein alderdiekin bat eginda.
- (4) Azkenik, krisiaren ondorioei aurre egiten ariko gara. Izan ere, euskal herritar guztien eskubide sozialak ditugu lehentasun. Horregatik, EH BILDUrentzat, herritar guztien ongizateak instituzio publikoen erdigunea izan behar du. Gutxien dutenen aldeko jarduna izango da gurea, murrizketa sozialei aurre egingo diegu eta bizitza duin baterako pertsona orok behar dituen baldintzak borrokatuko ditugu.

Hauxek dira gure helburuak eta gure konpromisoa lau urte hauetan.

HITZALDIRAKO ESKEMA-EDO:

TEXTO QUE SE PROPONE

Discurso marco para el Pleno de constitución del Ayuntamiento

En primer lugar, queremos dar las gracias a los vecinos que nos han elegido y respaldado, y también a todos los vecinos que han querido actuar en beneficio del pueblo eligiendo otras opciones.

A partir de hoy, en los próximos cuatro años, Euskal Herria Bildu trabajará, tanto en los pueblos como a nivel nacional, para impulsar el nuevo ciclo político que se ha abierto en nuestro pueblo, sin olvidar que tenemos una gran oportunidad de superar las dolorosas consecuencias que nos ha dejado el conflicto en los últimos años.

Con el fin de cumplir nuestro deseo, concretaremos nuestra aportación en cuatro ejes fundamentales:

- (1) En primer lugar, buscaremos acuerdos lo más amplios posibles en favor del derecho a decidir, tanto en la institución con los agentes sociales, para que el futuro de Euskal Herria esté en manos de los vascos.
- (2) En segundo lugar, queremos que el ayuntamiento sea de los vecinos. Para ello, desarrollaremos y consensuaremos normativas que impulsen la participación de la ciudadanía y de los agentes sociales.
- (3) En el mismo sentido, reivindicaremos y haremos efectiva la transparencia en las instituciones, trabajando en común con los agentes y partidos que compartan ese objetivo.
- (4) Por último, haremos frente a las consecuencias derivadas de la crisis, pues nuestra prioridad son los derechos sociales de todos los vascos. Por ello, para EH BILDU, las políticas públicas deben centrarse en conseguir el bienestar de toda la ciudadanía. Actuaremos en favor de los que menos tienen, haciendo frente a los recortes sociales y luchando por hacer realidad las condiciones necesarias para que toda persona pueda acceder a una vida digna.